Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2015eko urtarrilaren 15a, osteguna — 9 — Jueves, a 15 de enero de 2015

UDAL ADMINISTRAZIOA — 7 — ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL

## UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA

*Iragarkia*

Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiak, 2015eko urtarrilaren 8an egindako bileran, besteak beste, erabaki du Urola Erdiko Mankomunitateko Hondakinen Ikuskapenaren Erregelamendua behin betikoz onestea eta Toki Araubidearen Oinarriak arau tzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 70.2 atalek xedatutakoa betez, Ordenantzaren testua argitaratzea.

Erabaki horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal da Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salaren aurrean, Bilbon egoitza duena, bi hilabeteko epean, iragarki honen argitaralpena eta hurrengo egunetik aurrera zenba tzen hasita, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioaren 29/1998 Legeak, uztailaren 13koak, 46. atalean xedatutakoari jarraiki.

Azpeitia, 2015eko urtarrilaren 8a.—Leire Etxaniz Manterola, Urola Erdiko Mankomunitateko lehendakaria. (188)

### HONDAKINEN IKUSKAPENAREN ERREGELAMENDUA

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, eta 22/2011 Legeak, uztailaren 28koak, Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoak, eratzen dute hondakinen kontrolaren eta ikuskapenaren arloko ekintza administratiboaren eskumenen, printzipioen eta oinarrien lege-esparrua.

22/2011 Legeak, uztailaren 28koak, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzkoak, 43. artikuluan ezartzen duenez, aplikatzekoak diren arauen arabera behar bezala onartutako ikuskapen-kidegoek egin beharko dituzte ikuskapeneko funtzioak eta agintari eskudunek giza baliabide eta baliabide material egokiak eta behar adinakoak jarri beharko dituzte arau honetan aurreikusitako baimen, komunikazio eta ikuskapenen erregimenetik sortutako zaintza, ikuskapen eta kontroleko obligazioak betetzeko.

Erregelamendu honen bidez zehazten dira Urola Erdiko Mankomunitateko eta Mankomunitatea osatzen duten Udaletako Hondakinen Ikuskapenaren funtzioak, eta arautzen dira Ikuskapen-organoen eskudantzia, Hondakin-ikuskatzaileen ahalmenak eta betebeharrak, ikuskatuen obligazioak, ikuskapeneko jarduketak, ikuskapen-aktak, txostenak eta errekerimenduak, lagin-hartzea eta praktika perizial eta analitikoak, eta, halaber, zerbitzuen kalitate-kontroleko sistema. Aldi berean, Erregelamendu honek lege-esparru egoki bat eskaintzen dio Mankomunitateari eta berau osatzen duten udalerriei ikuskapeneko jarduketak egiteko eta erakunde arteko koordinazioa eta elkarlana bideratzeko, hondakinen ikuskapeneko jarduketak egiten dituzten zerbitzuak egituratze aldera.

Hondakinak ikuskatzeko zerbitzu bat artikulatzeko premia sortu da Urola Erdiko Mankomunitatean 2014an zehar inplementatutako zabor-bilketako zerbitzuek behar bezala funtzionatzen dutela segurtatu beharretik, zerbitzu horiek prebentzioaren aldeko apustua egiten dutela eta hondakinen birziklatzean eta balorizazioan aurrera egiten dutela kontuan izanda, ingurumena babesteko eraginkortasun handiagoa eta hobea lortzeko

## MANCOMUNIDAD DE UROLA MEDIO

*Anuncio*

La Asamblea General de la Mancomunidad de Urola Medio, en sesión celebrada el 8 de enero de 2015, adoptó entre otros, aprobar con carácter definitivo el Reglamento de Inspección de Residuos de la Mancomunidad de Urola Medio y, de conformidad con lo establecido en los artículos 49 y 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, publicar el texto de la Ordenanza.

Contra el presente acuerdo, se interpondrá recurso contencioso-administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco con sede en Bilbao, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio, de conformidad con el artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Azpeitia, a 8 enero de 2015.—La presidenta de la Mancomunidad de Urola Medio, Leire Etxaniz Manterola. (188)

### REGLAMENTO DE INSPECCIÓN DE RESIDUOS

La Ley 7/1985, de 2 de abril y la Ley 22/2011, de 28 de julio, de Residuos y Suelos Contaminados, constituyen el marco legal de las competencias, los principios y bases de la acción administrativa de la materia de control e inspección de residuos.

El artículo 43 de la Ley 22/2011, de 28 de julio, de Residuos y Suelos Contaminados, establece que «las funciones de inspección deberán ser llevadas a cabo mediante los cuerpos de inspección debidamente reconocidos conforme a las normas que les sean de aplicación» y que «las autoridades competentes se dotarán de los medios humanos y materiales suficientes para dar cumplimiento a las obligaciones de vigilancia, inspección y control que derivan del régimen de autorizaciones, comunicaciones e inspecciones previsto en esta norma».

A través del presente Reglamento se procede a concretar las funciones de la Inspección de Residuos regulando las atribuciones de los órganos de Inspección de la Mancomunidad de Urola Medio y de los Ayuntamientos que las componen, las facultades y deberes de los inspectores de Residuos, las obligaciones de los inspeccionados, las actuaciones inspectoras, las actas de inspección, los informes y requerimientos, la toma de muestras y las prácticas periciales y analíticas, así como el sistema de control de calidad de los servicios. Al propio tiempo, este Reglamento permite a la Mancomunidad y a los municipios que la componen disponer de un marco adecuado para el desempeño de las actuaciones de inspección y para la coordinación y colaboración interinstitucional en orden a la estructuración de los diferentes servicios que lleven a cabo las actuaciones inspectoras de residuos.

La necesidad de articular un servicio de inspección de residuos deriva de la necesidad de asegurar el correcto funcionamientos de los diferentes servicios de recogida implantados en la Mancomunidad de Urola Medio durante el año 2014, servicios que apuestan por la prevención y avanzan en el reciclado y valorización de residuos, con el objetivo de lograr una mayor y mejor eficacia en la protección del medio ambiente acorde a los

EK\CV GAO-I-2015-00188

helburuarekin, Europan hondakinen arloan ezarritako printzipioak eta eskakizunak betez eta herritarrei bizi-kalitate hobea eskaintzeko xedearekin.

Gainera, bilketa-zerbitzuak egoki erabiltzeak bilketaren beraren emaitzak optimizatzen laguntzen du eta hondakinen bolumena, premia eta kostuak murrizten, eta hori herritarren ekonomiaren onurarako da, tasa txikiagoa ordaindu beharko baitute.

Erregelamendu hau ematen da Urolako Erdiko Mankomunitateak hondakinen bilketarako eta kudeaketarako esleituta dauzkan auto-antolaketako eta araugintzako eskumenen baitan, zehazki, arau hauen arabera: Urola Erdiko Mankomunitatearen estatutuak, Mankomunitatearen Batzar Nagusiak 2011ko otsailaren 15ean onartuak eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2011ko ekainaren 9an argitaratuak (109. zk.) eta Etxeko Hondakinak Biltzeko Urola Erdiko Mankomunitateko Ordenantza Arautzailea, 2014ko ekainaren 16an behin betiko onartua eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua ekainaren 25ean (119. zk.). Orobat, kontuan hartzen dira Konpost Ordenantzaren Proiektuan egindako aurreikuspenak.

Azaldutako guztiagatik, Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak proposatuta, Mankomunitatearen Batzar Nagusiak honako Erregelamendua onartu du.

HONDAKINEN IKUSKAPENAREN ERREGELAMENDUA

*1. artikulua. Hondakinen ikuskapena.*

Erregelamendu honetan xedatutakoak arautuko du Urola Erdiko Mankomunitateko udalerrietako Hondakinen Ikuskapena.

Hondakinen ikuskapenaren misioa da Hondakinak Biltzeko Urola Erdiko Mankomunitateko Ordenantzan aurreikusitako hiri-hondakinak eta berdinetsiak kudeatzeko arauak betetzen direla zaintzea eta kontrolatzea, beste ikuskapen-zerbitzu batzuek esleituta dituzten funtzioak eragotzi gabe.

Xede horrekin, Hondakinen Ikuskapenak, esleituta dituen eskumenen barruan, Hondakinak Biltzeko Urola Erdiko Mankomunitateko Ordenantzan aurreikusitako hondakinak zaindu eta ikuskatuko ditu, bere eskumeneko gaiei buruzko informazioa eta aholkularitza emango du, eta herritarrek hondakinen gaineko araudiari buruz dituzten obligazioak betetzea sustatuko du.

*2. artikulua. Hondakinen Ikuskapenaren funtzioak.*

Honako funtzioak dagozkio Hondakinen Ikuskapenari:

a) Mankomunitateak kudeatutako hondakinak biltzeko sistemak zaindu, kontrolatu eta ikuskatzea, eta bilketarako ezarritako arauak betetzen direla egiaztatzea.

b) Hondakinak biltzeko enpresa emakidadunak kontrolatu, zaindu eta ikuskatzea, eta egiten duten jarduera aztertzea.

c) Garbiguneetan hondakinak biltzeko arauak betetzen direla egiaztatzea.

d) Erabiltzaileek konpostari buruzko arauak betetzen dituztela egiaztatzea.

e) Garbiguneetan hondakinak berrerabiltzeko programek, edo Mankomunitateko udalerrietan inplementatzen diren beste programa batzuek, ondo funtzionatzen dutela egiaztatzea.

f) Kontrol eta ikuskapeneko jarduketetan behar diren froga guztiak egitea eta biltzea.

g) Hondakinen Ikuskapenaren objektu diren gaiei eta jarduketei buruzko azterketak eta txostenak egitea.

h) Aholkularitza eta informazioa ematea herritarrei, dituzten eskubideak egikaritzeko, eta enpresei, obligazioak hobeto betetzen laguntzeko.

principios y exigencias europeas en materia de residuos y con el fin de proporcionar una mejor calidad de vida a los ciudadanos.

Además, la correcta utilización de los servicios de recogida contribuye a optimizar los resultados de la propia recogida así como a reducir el volumen, la necesidad y los costes de tratamiento de los residuos, lo cual beneficia, igualmente, a las economías de los ciudadanos, que pagarán una menor tasa.

Este Reglamento se dicta en el marco de las competencias de auto-organización y reglamentaria que la Mancomunidad de Urola Medio tiene atribuidas en materia de recogida y gestión de residuos de conformidad con los estatutos de la Mancomunidad de Urola Medio aprobados por la Asamblea General de la Mancomunidad el 15 de febrero de 2011 y publicados en el Boletin Oficial de Gipuzkoa el 9 de junio de 2011 (n.º109) y la Ordenanza de Recogida de Residuos de la Mancomunidad de Urola Medio aprobada definitivamente con fecha 16 de junio de 2014 y publicada en el Boletin Oficial de Gipuzkoa con fecha 25 de junio (n.º 119). Igualmente se tienen en cuenta las previsiones del actual Proyecto de Ordenanza de Compost.

En su virtud, a propuesta de la Presidenta de la Mancomunidad de Urola Medio, la Asamblea General de la Mancomunidad ha aprobado el siguiente Reglamento.

REGLAMENTO DE INSPECCIÓN DE RESIDUOS

*Artículo 1. La Inspección de Residuos.*

La Inspección de Residuos en los municipios de la Mancomunidad de Urola Medio se regirá por lo dispuesto en el presente Reglamento.

La inspección de Residuos tiene como misión vigilar y controlar el cumplimiento de las normas sobre gestión de residuos urbanos y asimilables previstos en la Ordenanza de Recogida de Residuos de la Mancomunidad de Urola Medio, sin perjuicio de las funciones que tienen asignadas otros servicios de inspección.

A tal fin, la Inspección de Residuos, en el ámbito de sus competencias, vigilará e inspeccionará los residuos contemplados en la Ordenanza de Recogida de Residuos de la Mancomunidad de Urola Medio, informará y asesorará sobre materias de su competencia y promoverá el cumplimiento de las obligaciones de los ciudadanos/as en relación con la normativa de residuos.

*Artículo 2. Funciones de la Inspección de Residuos.*

Corresponden a la Inspección de Residuos las siguientes funciones:

a) La vigilancia, control e inspección de los sistemas de recogida de residuos gestionados por la Mancomunidad, verificando el cumplimiento de las normas de recogida.

b) El control, vigilancia e inspección de las empresas concesionarias de la recogida, revisando la actividad que desarrollan.

c) Verificar el cumplimiento de las normas de recogida en los Garbigunes.

d) Verificar el cumplimiento por los usuarios de las normas sobre compost.

e) Verificar el correcto funcionamiento de los programas de reutilización de residuos en los Garbigunes u otros que se implanten en los municipios la Mancomunidad.

f) Practicar y recabar cuantas pruebas resulten necesarias en el marco de sus actuaciones de control e inspección.

g) La elaboración de estudios e informes sobre materias y actuaciones objeto de la Inspección de Residuos.

f) El asesoramiento e información a los/as ciudadanos/as en el ejercicio de sus derechos y a las empresas en orden al mejor cumplimiento de sus obligaciones.

EK\CV GAO-I-2015-00188

i) Oro har, ikuskapen eta zehapenari buruzko lege eta xedapenek esleitzen dioten beste edozein funtzio.

*3. artikulua. Mankomunitateko Hondakinen Ikuskapena.*

1. Mankomunitateko Lehendakaria izango da Mankomunitateko Hondakinen Ikuskapen Burua.

2. Honako funtzioak izango ditu Mankomunitateko Lehendakariak:

a) Hondakinen Ikuskapeneko jarduketen zuzendaritza, koordinazioa eta programazioa.

b) Bere eskumeneko gaiei buruzko zirkularrak egitea eta aginduak eta instrukzioak ematea Hondakinen Ikuskapenerako.

c) Hondakinen Ikuskapenaren jarduketak analizatzea eta ebaluatzea eta jarduketa horiei buruzko azterlanak, memoriak eta laburpen estatistikoak egitea.

d) Kalitate-kontroleko sistemak inplementatzea zerbitzu propioetarako nahiz zerbitzuen emakida duten enpresetarako, helburu gisa markatutako kalitate-adierazleen parametroen gainean aldizka egingo diren eta dokumentalki jasoko diren auto-ebaluazioetan oinarrituta.

e) Ikuskapen eta zehapeneko erregelamenduzko arauen proiektuak lantzea.

f) Akta-ereduak, ikuskapen-protokoloak, Ikuskatzaileen kredentzialak eta Hondakinen Ikuskapenak erabiliko dituen bestelako dokumentu ofizialak diseinatzea.

g) Hondakin Ikuskatzaileei informazioa eta aholkularitza ematea beren eskumeneko gaiei buruzko legeriari, jurisprudentziari, azterlanei eta argitalpenei buruz.

h) Hondakinen Ikuskapenak dituen baliabide teknikoen eta giza baliabideen premiak ebaluatzea eta Ikuskapeneko edo Ikuskapenaren inguruko plazei buruzko hautapen-prozesuetarako eta lehiaketetarako deialdia egitea.

i) Hondakin Ikuskatzaileen prestakuntza eta hobekuntza sustatzea.

j) Hondakin Ikuskatzaileen esku-hartzea eta lankidetza baimentzea, atxikita dauden eremutik kanpora egin behar diren jarduketetarako.

k) Hondakin Ikuskatzaileen esku-hartzea baimentzea beste ikuskapen-kidego batzuekin lankidetzan jarduteko, eskumen-esparru desberdinak ukitzen dituzten ikuskapenak egiteko.

l) Tokiko Korporazioetan hondakinen arloko ikuskapen-jarduketak koordinatzea.

m) Ikuskapen-kanpainak estudiatzea, prestatzea eta exekutatzea.

n) Bulego publiko bat gaitzea erregistrorako eta ikuskapen eta zehazpen-prozeduretako agerraldietarako, eta halaber ondare-erantzukizunari, kalteei edo bestelako prozedurei buruzkoetarako.

n) Indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkion gainerako funtzioak.

3. Udaletako Alkateei dagokie:

a) Udaltzainek edo aguazilek egindako txosten-aktak edo atestatuak erregistratzea eta Mankomunitatera helaraztea.

b) Jasotako salaketak erregistratzea eta dagokien tramitea ematea (udaltzainek edo aguazilek txosten-aktak edo atestatuak egitea eta Mankomunitateari helaraztea).

c) Behin-behineko neurri urgenteak hartzea, hala nola hondakinak kentzea bide eta leku publikoetako zirkulazioa edo segurtasuna oztopatzen dutenean, osasungarritasuna, apaindura eta itxura ona eragozten dutenean, edo hondakinak biltzeko zerbitzu publikoak funtzionatu ezin duenean.

g) En general, cualesquiera otras funciones que le atribuyan las leyes y disposiciones sobre inspección-sanción.

*Artículo 3. La Inspección de Residuos de la Mancomunidad.*

1. La Jefatura de la Inspección de Residuos de la Mancomunidad corresponde a la Presidencia de la Mancomunidad.

2. La Presidencia de la Mancomunidad desempeñará las siguientes funciones:

a) Dirigir, coordinar y programar las actuaciones de la Inspección de Residuos.

b) Dictar circulares e impartir órdenes e instrucciones sobre las materias de su competencia destinadas a la Inspección de Residuos.

c) Analizar y evaluar las actuaciones de la Inspección de Residuos y elaborar estudios, memorias y resúmenes estadísticos sobre las mismas.

d) Implantar sistemas de control de calidad para los servicios propios y las empresas concesionarias de servicios, basados en auto-evaluaciones periódicas, acreditadas documentalmente y realizadas sobre parámetros de indicadores de calidad objetivos.

e) Elaborar los proyectos de normas reglamentarias de inspección-sanción.

f) Diseñar los modelos de actas, protocolos de inspección, credenciales de los Inspectores y otros documentos oficiales de uso por la Inspección de Residuos.

g) Informar y asesorar a los Inspectores de Residuos sobre legislación, jurisprudencia, estudios y publicaciones relacionadas con materias de su competencia.

h) Evaluar las necesidades de medios técnicos y de personal de la Inspección de Residuos y efectuar convocatoria de procesos de selección y de concursos sobre plazas de o relacionadas con la Inspección.

i) Promover la formación y perfeccionamiento de los Inspectores de Residuos.

j) Autorizar la intervención y colaboración de Inspectores de residuos en actuaciones que hayan de realizarse fuera del ámbito en el que estén adscritos.

k) Autorizar la intervención de Inspectores de Residuos en actuaciones de colaboración con otros Cuerpos de inspección en los supuestos de inspecciones que afecten a distintos ámbitos competenciales.

l) Coordinar en las Corporaciones Locales las actuaciones de inspección en materia de residuos.

m) Estudiar, preparar y ejecutar las campañas de inspección.

n) Habilitar oficina pública para registros y comparecencias en procedimientos de inspección-sanción así como de responsabilidad patrimonial, daños u otros.

n) Cuantas funciones les atribuya la legislación vigente.

3. Corresponderá a la Alcaldía de los Ayuntamientos:

a) Registrar las actas-informes o atestados de la Policía Municipal o alguaciles dándoles traslado a la Mancomunidad.

b) Registrar las denuncias recibidas, dándoles el trámite que proceda (realización de actas-informes o atestados por la Policía Municipal o alguacil y traslado a la Mancomunidad).

c) Adoptar medidas provisionales urgentes, tales como retirada de residuos que obstaculicen el tránsito o la seguridad, salubridad, ornato y decoro en vías y espacios públicos o que imposibiliten o perturben o dificulten el funcionamiento del servicio público de recogida.

EK\CV GAO-I-2015-00188

d) Herritarrei errekerimendua egitea, idatziz nahiz hitzez, arauak bete ditzaten eta zerbitzu publikoak behar den bezala funtziona dezan.

e) Ikuskapen urgenteak egiteko eskatzea aurreikusitako programatik kanpora.

f) Bulego publikoa gaitzea ikuskapen-prozeduretako erregistro eta agerraldietarako.

g) Era guztietako jakinarazpenetarako laguntza ematea.

*4. artikulua. Hondakin Ikuskatzaileak.*

1. Mankomunitatearen barruan, 2. artikuluan aurreikusitako Ikuskatzaile funtzioak egingo dituzte, beren funtzioen barruan hondakinen arloko ikuskapen-lanak zehaztuta dauzkaten lanpostuak betetzen dituzten funtzionarioek, hala nola Ingurumeneko Zerbitzuburuak edo teknikariak.

Lehendakariaren ebazpen bidez, onartu ahal izango dira, behin-behinean eta aldi baterako, espezializazio edo unitate handiagoa behar duten Ikuskapen-lanak egiteko programak eta, horretarako, programako bitarteko funtzionarioak izendatu ahal izango dira ikuskapen-ekintzako gai eta lurralde-esparruetarako. Momentu bakoitzean dauden zirkunstantzia eta premien arabera eratu eta osatuko dira, eta atxikitzeko gutxieneko maila C1 Talde Profesionala izango da.

Funtzionario horiek Erregelamendu honetan aurreikusitako ahalmen eta prerrogatibak izango dituzte.

Hondakin Ikuskatzaileek identifikazio-txartel bat izango dute, ikuskatzaileak direla egiaztatzeko. Txartel-eredua Erregelamendu honi erantsitako dokumentu batean jasotzen da.

2. Beren funtzioa betetzen ari direnean, Ikuskatzaileek agintari izaera izango dute eta beste agintari edo agintzaritzako agente batzuei sostengua, laguntza eta lankidetza eskatu ahal izango diete, hala behar izanez gero, besteak beste, Udaltzaingoari, Ertzaintzari edo Segurtasuneko beste Indar eta Kidego batzuei.

Administrazio Publikoek eta norbanakakoek laguntza eskainiko diote Hondakinen Ikuskapenari, eta, hala eskatzen dietenean, ikerketa, kontrol eta ikuskapeneko lanak egiteko garrantzitsuak eta beharrezkoak diren informazioak, aurrekariak eta datuak emango dizkiote, datu pertsonalak babesteko legeak ezarritako mugak errespetatuz.

3. Hondakin Ikuskatzaileek, beren funtzioen egikaritzan, eta aguazilak eta udaltzainek ahalmena izango dute:

a) Poltsak, kuboak eta ontziak irekitzeko eta miatzeko.

b) Bulego publikoetan agertzeko errekerimendua egiteko.

c) Botatako hondakinen laginak hartzeko.

d) Hirugarren artikuluko 3.atalaren c eta d apartatuetan aurreikusitako neurriak hartzeko.

e) Hondakinak biltzeko zerbitzu publikoko arauak betetzen direla egiaztatzeko beharrezko deritzoten beste edozein ikerketa edo azterketako egintza burutzeko.

f) Enpresariei eta profesionalei informazioa eta aholkularitza emateko, hondakinak kudeatzeko xedapenak bete ditzaten, bete behar dituzten obligazioen berri emanez.

g) Indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkien gainerako funtzioak egiteko.

*5. artikulua. Hondakin Ikuskatzaileen betebeharrak.*

1. Ikuskapeneko jarduketak egingo dira hondakinei buruzko araudian eta araudi hori garatzen duten xedapenetan

d) Efectuar requerimientos verbales o escritos a los ciudadanos para el cumplimiento de las normas y para el correcto funcionamiento del servicio público.

e) Solicitar la realización de inspecciones urgentes fuera de la programación prevista.

f) Habilitar oficina pública para registros y comparecencias en procedimientos de inspección.

g) Colaborar en la práctica de las notificaciones de toda clase.

*Artículo 4. Los Inspectores de Residuos.*

1. En el ámbito de la Mancomunidad las funciones previstas en el artículo 2° serán realizadas por funcionarios que desempeñen puestos de trabajo que supongan el ejercicio de funciones inspectoras en materia de residuos tales como el/la Jefe/a de Servicios o el/la Técnico/a de Medio Ambiente.

Por Resolución de la Presidencia se podrán aprobar, con carácter temporal, programas para la realización de tareas propias de la Inspección que requieran una mayor especialización o unidad de actuación y efectuar nombramientos de funcionarios interinos por programa por materias o ámbitos territoriales de acción inspectora. Su constitución y composición responderá a las circunstancias y necesidades de cada momento. El nivel mínimo del Grupo Profesional de adscripción será el correspondiente al C1.

Dichos funcionarios estarán investidos de las facultades y prerrogativas previstas en este Reglamento.

Los Inspectores de Residuos estarán provistos de una tarjeta de identificación que les acreditará como personal inspector, cuyo modelo se recoge en documento anexo a este Reglamento.

2. En el ejercicio de su función, los Inspectores tendrán carácter de autoridad y podrán solicitar el apoyo, auxilio y colaboración que sean precisos a otras autoridades o agentes de la autoridad, incluidas la Policía municipal, la Ertzaintza y otras Fuerzas y Cuerpos de Seguridad.

Las Administraciones Públicas y particulares prestarán colaboración a la Inspección de Residuos facilitándole, cuando les sea solicitada, las informaciones, antecedentes y datos que resulten relevantes y necesarios para el ejercicio de sus funciones de investigación, control e inspección, con las limitaciones legalmente establecidas en materia de protección de datos de carácter personal.

3. Los Inspectores de Residuos, en el ejercicio de sus funciones, el/la alguacil/a y la Policía Municipal estarán facultados para:

a) Apertura de bolsas, cubos y recipientes y registro.

b) Requerir la comparecencia en las oficinas públicas.

c) Practicar la toma de muestras de los residuos depositados.

d) Adoptar las medidas previstas en los apartados c y d del apartado 3 artículo 3.

e) Realizar cualquier otro acto de investigación o examen que juzguen necesario para verificar el cumplimiento de las normas del servicio público de recogida.

f) Informar y asesorar a los empresarios y profesionales en orden al cumplimiento de las disposiciones sobre gestión de los residuos, advirtiéndoles, en su caso, de sus obligaciones.

g) Cualesquiera otras funciones que les atribuya la legislación vigente.

*Artículo 5. Deberes de los Inspectores de Residuos.*

1. Las actuaciones inspectoras se llevarán a cabo en el marco competencial previsto en la normativa sobre de residuos

EK\CV GAO-I-2015-00188

aurreikusitako eskumenaren esparruan, erabat men eginez legeari eta zuzenbideari eta eraginkortasun, hierarkia, koordinazio eta herritarrentzako zerbitzu printzipioen arabera.

2. Ikuskapenetan, funtzionarioek adeitasunez eta kortesiaz tratatuko dute jendea, horregatik aginpiderik eta ahalmenik galdu gabe, eta saiatuko dira ahalik eta gutxien oztopatzen zerbitzu publikoaren lana.

3. Ikuskapeneko bisitetan, funtzionarioek beren burua identifikatu beharko dute eta, ikuskatuak eskatzen badie, beren izaera justifikatzeko kredentzialak erakutsi beharko dituzte. Hala ere, ez dute obligaziorik beren presentziaren berri emateko ikuspenaren lehenengo momentutik, berriemate horrek kalte egin baliezaioke ikuskapen-jarduketari.

4. Ikuskatzaileek sekretu eta isiltasun profesionalaren betebeharra betetzeko obligazioa izango dute beren lanean ezagutzen dituzten kontuei buruz.

*6. artikulua. Ikuskatuen obligazioak.*

Ikuskatuen obligazioak izango dira:

a) Ikuskapena egiten uztea eta bizilekua ez diren lekuetara sartzen uztea, ikuskatzaileek kontrolak egin nahi dituztenean.

b) Bulego publikoetara joatea Hondakin Ikuskatzaileek horretarako errekerimendua egiten dietenean, dela ikuskapen eta zehapeneko espedienteak tramitatzera, dela ondare-erantzukizuneko edo ondareari egindako kalteei buruzko espedienteak edo Urola Erdiko Mankomunitateak tramitatzen dituen bestelakoak tramitatzera.

c) Agertutakoaren identitateari, enpresaren titularitateari, egiten dituzten jarduerei, Hondakinak Biltzeko Ordenantzan aurreikusitako hondakinen ezaugarriei eta hondakinen kudeaketaren kontrolari buruz eskatzen dizkieten datuak eta informazioa ematea.

d) Laginak hartzen eta frogak egiten uztea eta lan horietan laguntzea, eta 3. artikuluko 3. talaren c) eta d) apartatuetan jasotako behin-behineko neurriak exekutatzeari dagokionean ere.

e) Ikuskatzaileek idatzitako akta sinatzea, egindako bisitaren agiri gisa jasota gera dadin, agertutakoak, bere interesak defendatzeko, akta horri egin diezazkiokeen oharrak eragotzi gabe. Akta sinatzeak ez du esan nahi izango edukia onartzen denik, interesatuak berak espresuki hala adierazi ezean.

f) Eskura dauzkaten baliabideak Ikuskatzaileei eskaintzea, egiaztapen, kontrol eta ikuskapeneko lanak egiteko.

g) Eta, oro har, Ikuskatzaileen lana eta funtzioak betetzen uztea eta erraztasunak ematea.

*7. artikulua. Ikuskapen-lana.*

1. Hondakinen Ikuskapenak ofizioz jardungo du beti, goikoek (Mankomunitateko Lehendakariak edo Alkateak) emandako agindua betez edo bere kabuz. Edonola ere, bere kabuz egiten dituen jarduketetan eraginkortasun eta egokitasun printzipioak izango ditu gidari eta ez du oztopatuko programazio orokorraren helburuak betetzea.

Ikuskapenak jarduketa programatu, erregular edo sistematikoen arabera egingo dira, edo hondakinak biltzeko arloan arauhauste izan litezkeen jokabideak daudela susmatzen delako edo jakin delako, edo edozein pertsona fisiko edo juridikok egindako salaketa baten ondorioz.

